


Balorezko proposamenean aipatu den bezala, diseinua gure markaren zati garrantzitsu bat da, horregatik bezero bakoitzarentzat diseinu bakarra egingo dugu. Honela bezeroak zehazki nahi duten produktua lor dezakete. Beraz, diseinua guk landuko dugun jardueretako bat da.

Diseinu egokia aurkitzeko, garrantzitsua da bezeroarekin harremana fisikoa izatea, nahiz eta urrun daudeneztat web orrialde bat daukagun. Gure ustez harremana fisikoa baldin bada, askoz errazagoa da elkar ulertzea eta saltzen dugun produktua askoz ere pertsonalizatuagoa izatea. Horretarako gure denda fisikoaz baliatuko gara, Donostian egongo dena, bertan seguruenik hasierako modeloren bat egongo da bezeroek ikusteko



nolakoa den sarrerako bainera eta hortik abiatuta errazagoa izateko nolakoa izango den beraien bainera. Hala ere, denda batean ezin ditugu bainera gehiegirik sartu.

Eroslearen ideia ere oso atal garrantzitsua da eta kontuan hartu beharrekoa gure proposamena egiterako orduan. Orokorrean gure produktua kirolariei bideratuta dago, beraz beraien helburua ezagututa, ahalik eta aukera hoberena bilatzen saiatuko gara beraien nahiak asetzeko. Halabaina, kirolaria ez den jendeak ere eros dezake, eta bezero horien nahiak ere ezagutu behar ditugu zerbitzu ona eskaintzeko.

Produktu guztiek izango dute komunean diseinu minimalista, baina hori ez da jendeak bilatzen duen guztia, izan daiteke batzuk erosotasuna gainjartzea, beste batzuk

soinu sistema eta telebista onak izatea... Beraz hau ere da gure jardueretako bat, bezeroen nahiak interpretatzea eta honela ahalik eta produktu egokiena saltzea.

Lehen aipatu dugun bezala, denda fisikoa izango dugu eta hasiera batean salmenta puntu nagusia izango da, baina horretaz gain, web orri bat izango dugu gure informazioa argitaratzeko, enpresaren berrikuntzak eta garapena azaltzeko eta baita gure produktuak beste jende askori hurbiltzeko. Salmenta pertsonalki egitea da gure lehentasuna, baina gaur egun internetek daukan garrantziarekin ezinbestekoa da internet bidez erosteko aukera ematea. Gerora, metodo eraginkorra dela ikusten badugu, izan daiteke diru sarrera garrantzitsu bat bilakatzea, baina hasiera batean ez da gure web orriaren helburu nagusia. Web orria azpi kontratatuko dugu, baina behin eginda dagoela guk eraldatuko dugu eta eguneratuko dugu.